

# Hitzatzea

Neuk ere ilehori izan nahi dut

KIRMEN URIBE



Badira hiru-lau urte Mitxel Murua editoreak enkargu bat egin zidala: galdetu zidan ea idatziko nuen haur etorkinei buruzko ipuin labur bat. Nik baietz erantzun nion berehalaxe, baina neure bostean banekien ez zela lan xamurra izango. Ez nuen gaia azaletik jorratu nahi. Paternalismotik eta ohiko klitxeetatik ihes egin nahian, onena haur etorkinak berta-bertatik ezagutzea zela pentsatu nuen. Amaia Sesma pedagogoarekin hitz egin eta Arabako hainbat ikastetxetara joan ginen elkarrekin. Jakin nahi nuen zeintzuk diren haur etorkinen eguneroko kezak. Gauzak horrela, Asiatik, Amerikatik, Afrikatik edo Europa Ekialdetik etorritako hamaika haur ezagutu nituen. Gogoan dut Peruko neska batek esan zidala hemen ohartu zela jantziak duen garrantziaz. Mickey Mousen elastiko batekin agertu zen lehen egunean eskolara eta ikas-kide guztiak barrez lehertzen hasi omen zitzaizkion. Modaz pasatako kamiseta zeramalako soinean. Etxera joan eta lehenengo gauza amari agindu zion elastiko berriak erosteko. Baina zirrara handiena Amira izeneko neskato marokoarrak egin zidan. Neska lotsatia da Amira eta behin konfidantza hartu zuenean bota zidan: «Nik ilehori izan nahi dut». Nik esan nion neska polita zela, bere ile beltza ederra zela eta begi beltzak ezin ederragoak. «Badakit, baina ilehoriek lagun gehiago dituzte».

Ez zen hura izan migrazioen gaia jorratzen nuen estraineko aldia. Mikel Valverde marrazkilariarekin batera Garmendia saila jarri nuen abian 2003an. Garmendia sailak XIX. mendean Euskal Herritik Kaliforniara lan bila joandako emigrante baten bizimodua du mintzagai. Emigrazioa baina alderantziz kontatua. Lan bila Euskal Herrira datorren norbaiten ibilerak kontatu beharrean kanpora doan euskaldun baten kontuak aldatu nituen paperera. Haurrei gogorararazi nahi nien gu geu ere etorkinak izan garela, duela gutxi arte europarrok egin behar genuela etxetik alde bizimodu hobea nahi bagenuen. Eta hona datozenen zailtasun berak nozitu behar izan genituela geuk ere.

Hasieran artzain aritu arren laster sartu zen pistolari Garmendia. Horixe kontatu zidan behintzat Osaba Bonik. Bazela Garmendia izeneko artzain bat eta gero pistolari izan zena Ameriketara. Eta haiek ume zirenean Garmendiara jolasten zutela, haietariko bat izaten zela Garmendia pistolaria eta gainontzekoak hura harrapatu nahian zebiltzan soldaduak. Horixe baino ez zidan kontatu osabak. Osabari entzun bezain pronto konturatu nintzen Garmendiaren atzean bazegoela istorio bat. Bi aukera nituen liburua idazteko. Lehenengo bidea, artxibategietara jo eta Garmendia hori egitan nor izan zen arakatzea zen, eta ondotik bere benetako bizitza kontatzea. Bigarren bidea baina nahiago nuen, nik dena asmatzearena alegia. Banuen izena, Garmendia. Banekien Amerikara joan zela eta pistolaria izan zela. Zer behar nuen gehiago. Haurrentzako kontakizuna zenez, haurren dohainik handienari kasu egitea baino ez nuen, irudimenari. Eta irudimenari jarraiki idatzi ditut hiru nobelatxook, umea izango banintz.



Umea izango banintz. Ez dut gauza berririk esango esaten badut neure barruko umeari entzunda idatzi ditudala nobelak. Aurretik ere autore askok esan baitu hori, esan du Barriek, esan du Durrellek, esan du Dahlek. Baina nire kasuan ere horrelaxe da. Garmendia saileko hiru liburuen ezaugarriak aipatu beharko banitu honako hauxe erantzungo nuke: fantasia, absurdua, umorea eta kontaketa fragmentarioa. Bateon batek pentsatuko du literatur teoriari ari naizela ezaugarriok izendatzean eta halaxe da, maila teorikoari garrantzia handia

ematen baitiot. Generoaren nondik norakoei erreparatzeari idatzen jarri baino lehen. Baina egia da orobat ezaugarriok haur eta gaztetxoek izaeran bertan ikusten ditudala.

Garmendiaren bigarren emaria, Garmendia errege izeneko nobelatxoa, honelaxe hasten da. Garmendia casting batera aurkeztu da, famako kantaria izateko esperantzaz. Telebistan horren modan dauden casting horiek nituen gogoan. Bada Garmendiarena Buffalo Billen zirkuan sartzeko castinga izango da. Garmendiak kantatu du aproban. Horren gaizki ezen egundoko zaparrada botako duen handik gutxira. Euri jasa dela eta, Billen gurdia lokatzean mugitu ezinik kateatu da. Garmendiak gurdia ateratzen lagunduko dio. Buffalo Billek ez du zalantzarik izango, Garmendia zirkurako hartuko du. Baina ez hark uste zuen moduan kantari gisa, indartsu legez baino. Esan nahi baita, gaizki kantatu eta euria egitearena haurrek gauza arruntzat dutela, ez diotela aparteko arretarik jartzen pasarte horri. Barre egiten dute eta aurrera jarraitzen dute irakurketarekin. Beren logikatik oso hurbil dagoelako, umeek ez diotelako gure arrazonamenduaren logikari

jarraitzen. Eta bestelako logika horrek kausa-efektu haremana era ezberdin batean planteatzeko aukera ematen dio idazleari. Gertakizunak ez datoz ohiko moduan. Edozer gerta liteke kontakizunetan. Edozer baina neurri baten barruan beti, logika jakin bati erantzunez, nahiz eta logika hori ezberdina izan. Idazlea eta irakurlearen arteko hitzarmena errespetatuz.

Umorearena berez datorkie haur eta gaztetxoiei. Osabak Garmendiaren berri eman zidanean ikusi nuen hori. Garmendia ezin zen pistolari fina izan. Ez zuen tiro bakar bat ere botako. Berekoia, lotsatia, isila izango zen. Lodia eta moldagaitza. Garmendia desastre xamarra izango zen, gizonezko gehienak bezala. Baina bihotz handia izango zuen, hori bai. Soldaduak atzetik dituela, goseak gehiago egin eta sua piztuko du hirugiharrea egiteko. Soldaduek kea ikusiko dute eta harrapatu egingo dute gizarajoa. Pistolari baten abenturak idatziko banituen ez zegoen bestelako biderik; Mendebalde basatiko kontuak ekarriko banituen gogora genero zahar hura berritu beharra zegoen, ironiaren bitartez. Ezin zuen izan Osabak berak itsasoan irakurtzen zituen mendebaldeko nobelatxo haien modukoa. Protagonista humanizatu gura nuen, ez zedila izan heroia, ezta antiheroia ere. Umeez beren benetako aita, osaba edo aitonaekin lotzeko modukoa izango zen Garmendia. Orduan, Garmendia arazoetan sartuko da eta ataka zailetatik libratuko duena Fanny izango da, Salooneko prostituta, bera baino askoz azkarragoa eta kultuagoa.

Haur eta gazteak berehalaxe aspertzen dira, oraintxe hasten dira marrazten, oraintxe nahi dute baloiarekin jolastu. Kontakizuna ere halakoxea da hiru nobeletan, fragmentarioa. Geure eguneroko



bizitza ere halakoxea da eta, gero eta zatikatuagoa. Dena da etena. Hori dela eta, nobelatxootan kontakizun nagusia badago, ezustekoz eta bihurgunez beterik; baina baita ere badaude kontakizun txikiak, tradiziozko ipuinak, beste idazleren errelatoak eta poemak. Salooneko sukaldaria Xi deitzen da. Xiren platerik ezagunena gailetak dira. Eta gaileta bakoitzak poema bat dakar barruan. Horrela, gaztetxoek poemak irakurriko dituzte, kontakizunean harilkatuta datozen poemak, direla Emily Dickindonenak, direla tradiziozko txinatarrak. Eta gai-

leta bat jaten den bezala irakurtzen dira olerkiak, manera naturalean.

Fantasia, absurdua, umorea eta kontaketa fragmentarioa. Barruko umeari entzutea. Gogutan dut Garmendia idazten ari nintzela barre egiten nuela neure golkorako. Etxekoek entzun egiten zidaten barrez eta galdetzen zidaten ea zer egiten nuen neure bostean barrez. Erotuko nintzen beldur. Hala ere, idazteko modu hoberik ez dagoela iruditzen zait. Neuk barre egiten badut irakurleek ere barre egingo dutela pentsatuz.

Amirak ilehori izan nahi du. Dena den, gutxika gutxika konturatuko da ilehori gutxi daudela gure artean. Jendea hemen ez dela ilehori edo beltzarana. Bitarteko kolore asko daudela. Eta bere antzeko jende ugari aurkituko du Gasteizen Amirak, ilehoriak gutxien. Literaturaren lana ere horixe da, zehaztasuna bilatzea, ñabarduretan arreta jartzea, ilehori eta beltzaranen artean.

Zergatik idazten dudan galdetzen didate tar-teka marteka nire irakurle txikiak. Amirak ilehori izan nahi zuen lagun gehiago izateko. Bada, ondo pentsatuta, Amiraren arrazoi beragatik idazten dut neuk ere azkenean: lagunak egiteko.

**Behinola aldizkariaren**  
argitalpena 2008ko maiatzean egin zen Iruñeko  
Ona Industria Gráfica inprimategian.

